

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jean-Baptiste Barberarena

*Zaro, Nafarroa
Beherea (1938)*

Aurkibidea



Biografia



Jean-Baptiste Barberarena Zaron sortu zen 1938ko agorrilaren 28an eta zazpi haurridetako familia batean hazi zen. Eskolan ibili zen 7 urtetarik 14 urtera arte, lehenik herrian, "zertifikata" lortu arte, eta azken urtea Donibane-Garazin, espainola ikasteko. Aitatzik Egurgin erosi zuen etxola bere saroarekin XIX. mende erditsutan. Geroztik aitatik semera, belaunaldiz-belaunaldi, uda guziak bortuan iragan dituzte, neguko bazkak, aldiz, Amikuze aldean erosiz. Gaur erretiratua izanik ere, Jean-Baptiste Egurgira igaiten da kabala batzuekila.

Zintak

ZRO-001

- **Proiektua:** Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maitia, Pantxika
- **Data:** 2008-09-28
- **Iraupena:** 43 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Artzaingoaren transmisioa hiru belaunaldietan zehar (1860-2000)

- **Erref:** ZRO-001/001
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

Aitatxi Garaldarra zuen Paullek. Ameriketatik itzultzean etxola bere saroarekin erosi zituen Garaziko sindikatari. Hau gauza arraroa, gehienetan etxola eta saroa Garaziko sindikatarenak gelditzen baitira. Aitaren denboran, artzainak maiatza hasieran (lehenean edo bian) igotzen ziren bortura eta han egoiten abendo hondarra arte. Ardiak urtarilan edo otsailan erditzen ziren. 1956ko izoztearen ondotik, artzainek ekoizteko ohidurak aldatu zituzten : ardiak gero eta goizago erdiarazten hasi ziren.

2. Haurtzaroa Zaron 1940 hamarkadan

- **Erref:** ZRO-001/002
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:05:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

Eskolan bortxaz ibiltzen zen Paulle. Hala ere lehen maila Zaron egin ondoan, urte batez Donibane-Garazin ibili da Española ikasteko, pentsatuz bortuko harat-honatentzat baliagarri izanen zitzaiola. Goizik hasi zen artzaingoan, ofizioa aitarekin ikasiz.

3. Ardi gasna egitea moda zaharrean 1950 hamarkadan

- **Erref:** ZRO-001/003
- **Iraupena:** 0:05:37. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:11:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserrria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

Aitarekin ikasirik, ardi gasna egiten zuten bortuan moda zaharrean : esnea behin bakarrik beroaraziz eta gasna erraraziz gaxura ateratzeko. Neguan aldiz, esnea saltzen zuten Garruzeko esnetegiari. Hau zerratu zen 1956ean, ondorioz esnea Donapaleuko esnetegira eramen behar zuten « Roquefort » gasna egiteko. 1938an hezurreria deitu eritasunak makur frango egin zuen artaldeetan, orduko hezurreria oraiko agalaxiaren antzekoa zen.

4. Artzain 1963tik goiti

- **Erref:** ZRO-001/004
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserrria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

Paulle bere kondu plantatu zen 1963an. Etxeko artaldeak emendatu zuen ardi batzuek erosituz. Neguko bazkaiak Amikuze aldean erosten zituen, uda guztiak aldiz Egurgin iragaiten. Xiberotarren moldean hasi zen gasna egiten, esnea bi aldiz berotuz. Gasnak ostatu batzueri saltzen zituen bai eta ere gasna saltzaile batzuen bidez.

5. Artzaingoaren bilakaera (1965-2005)

- **Erref:** ZRO-001/005
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

Duela berrogei bat urte, lau artzain xoil baziren Egurgin berean, Paulleren etxolaren auzoan. Inguruetan ere, lurrik gabeko artzain frango baziren ardi tropa txikiak. Azken urte hauetan, artzain kopurua apaldu da, artaldeak aldiz anitz emendatu.

6. Artzain lana Egurgin (1965-2005)

- **Erref:** ZRO-001/006
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:17:32. **Bukatu:** 00:22:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

Egurgin eginak diren etxolen berezitasuna da saroaren parte bat Frantziako lurretan dela, bestea aldiz Espainian. Ondorioz artzainek lan handia zuten ardiak ongi zaintzen, bereziki gauaz Garaziko lurretan egon behar baitzuten. Egurgiko artzainek harreman frango zuten Orbaizetakoekin. Tamalez, bi eskualdeetan artzain kopurua murriztu da, Orbaizetan kasik desagertu arte.

7. Aldaketak bertan gainera azpiegiturretan (1970 hamarkadatik goiti)

- **Erref:** ZRO-001/007
- **Iraupena:** 0:06:11. **Hasi:** 00:22:27. **Bukatu:** 00:28:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

1975ean Egurgirainoko bidea ireki zen. Garai berean egin ziren etxolen arraberritzeak, ura eta elektrika ezartzeak. Garaziko sindikatak kudeatu obra hauek artzainen lan baldintzak errexu zituzten. Artzain ofizioa ere emeki emeki merkatuari moldatu da, axuriak eguberriko salduz. Haatik lehenago artzainek sos ederra egiten zuten ardi ilearekin eta atzarrekin, orai ezin salduak direnak.

8. Garazi-Aezkoaren arteko juntak (1980 hamarkadan)

- **Erref:** ZRO-001/008
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:28:38. **Bukatu:** 00:30:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

1980ko hamarkadan, Aezkoako mendi arduradunek juntak markatu zituzten bortuan artaldeak zaintzeko. Azken urte hauetan, ardi gutiago izanez Aezkoan, juntak ez dira gehiago erabiltzen, ondorioz ardiak nora nahi joaten dira.

9. Lurrik gabeko artzainen gero iluna

- **Erref:** ZRO-001/009
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

Artzain xoil ofizioa desagertzekotan ote da ? Azken hilabete hauetako arrangura guziak kontutan hartuz, Paullek pentsatzen du artzaingoak ez duela gerorik. Desagertze honek ondorioak izanen ditu bortuan : etxola frango hutsik geldituko da, ibiltzaile gero eta gehiago izanen da. Zer bilakatuko da mendia ?

10. Soldado 1950 hamarkadan

- **Erref:** ZRO-001/010
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:33:48. **Bukatu:** 00:36:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Algeriako gerra (1954-1962)

Laburpena:

Hogei urtetan deitua izan zen Paulle soldadogoarentzat. Hamalau hilabete egin zituen Parisen, ondotik Algeriara joan aitzin itsasontziz. Algeriako oroitzapenik ez du kondatu nahi izan, itsuskeriak bizi izan dituztela, besterik ez. Algerian zelarik, Paulle-ren aitak mutila hartu zuen artzain lanentzat. Handik itzuli bezain laster, Paulle artzain ofizioan bermatu zen.

11. Kontrabanda 1960 hamarkadan

- **Erref:** ZRO-001/011
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:36:34. **Bukatu:** 00:40:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:

1960 hamarkadan, zaldiak pasatzen zituzten kontrabandan Hego aldetik Frantziara. Hiruzpalau urtez, paketa karreatzen ari izan da Paulle: zigarroak, kafea eta kobrea. Oroit da ere harpana edo trinka sega frango pasaarazirik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com